

BANDOA

(B6-2023)

AUTOBUS GELTOKIAK ZALAIN AUZOAN

Nafar Gobernuak onartu berri ditu Zalain auzoan jartzeko bi autobus geltokiak, bat Irungo norantzan eta bertzea Berako norantzan. Eskaera hori aspaldikoa da, autobusa hartzeko Beraraino etorri behar baitziren Zalaingo auzotarrak, nahiz eta autobusak beraien etxe atetik pasatu.

Aukera desberdinak landu dira auzotarrekin azken urte hauetan, baina Nafar Gobernuak ez ditu orain arte onartu. Azkenean, lortu da Gobernuak ezartzen zituen baldintzak betetzen dituen aukera bat onartzea.

Horren arabera, Irun alderako linean autobusak Noil gasolindegi ondoan dagoen zerbitzuko karrikan geldituko dira. Berriz, Bera alderako linean N-121Ako Zalaingo irteerako malda bukaeran (Bide Berderako zubiaren ondoan) geldituko dira. Bi geldialdi hauek auzoko erdigunetik hurbil daude, eta irisgarritasun egokia dute auzotarrei zerbitzua emateko.

Geldialdi hauek bandoa argitaratu eta zazpi egunera jarriko dira martxan.

Bera, 2023.02.17
SIINADURA DIGITALA.
ALKATEA, Aitor Elexpuru Egaña